

Natalia Polito, dokumentalgilea

«Beharrezkoa da monopolio informatiboa apurtzea»

2001eko krisialdiak eta ondorengo hilabeteetako gertaerek mundu osoko telebistetan hedatu zituzten Argentinako irudiak. Haietako asko dokumentalista ezezagunek grabatu zituzten. Izan ere, Euskal Herrian ez bezala, Argentinan luzea da borrokak filmetan jasotzeko ohitura, eta Fernando Birri, Raymundo Gleyzer edota Pino Solanas dira tradizio horren lekuko. Natalia Polito (Buenos Aires, 1974) aipatutakoek egindakoa irarripena ematen saiatzen direnetako bat dugu. Udan Euskal Herrian harrapatu genuen, azken lanak erakusten.

ALVARO HILARIO P. DE SAN ROMÁN

Argazkiak: Judith Fernandez

Birriren eskolak 50 urte bete dituen honetan, dokumental argentinarrek ezaugarri propioak mantentzen dituela esan al daiteke?

Gure dokumentalaren jatorria 50eko hamarkadako bada ere, lan aipagarrienak 70ekoak dira; urte haietakoak dira Raymundo Gleyzerren *Cine de la Base* edota Pino Solanasen *Cine de la Liberación* egitasmoak, biak 1976ko Kolpeak zapuztuak, Gleyzer bahitu eta desagerrarazi egin baitzuten. Egungo dokumentalistok euren lanari jarraipena eman nahi diogu eta lan horrek erabilitako metodologiarekin eta zinera erakarri nahi dugun ikusleriarekin du zerikusia, baita jorrazten ditugun gaiekin eta berriztapen estetikoekin ere. Gaietan, ildo bera dugu: giza mugimenduek bultzatutako borrokak, 70eko ikasleak edota 90eko langabetuak; hedabide handiek isilarazitako ahotsak. Borrokalaria dira, beraz, filmetako protagonistak. Bestalde, *Cine de la Base* planteamenduaren baitan, filma ekoiztea ez zen zeukaten ardura bakarra, berau banatzea eta ohikoa ez zen ikusleengana helaraztea ere lan garrantzitsuak ziren. “Fabrika bat, zine areto bat” zen lema. Gaur, fabrikarik ezean, plazak,



elkarretaratzeak eta mugimenduen egoitzak ditugu areto.

Esaten duzunaren arabera, zinegileen eta giza mugimenduen arteko elkarlana dagoela ematen du.

Borrokan daudenek euren historiak kontatzeko gai izan daitezela nahi dugu eta teknologia berriak ezagutu eta erabiltzeko ikastaroak antolatzen ditugu. Hala ere, hamaika zeregin dituenari beste ardura bati eusteko eskatzea ez da xamurra. Ondo legoke mugimendu bakoitzeko berriemai-

le bat egotea, baina, momentuz, dokumentalgileak gara lanari eutsi behar diogunak. Mugimendukoak poliki-poliki joango dira sartzen, praktikaren bidez.

Zinearen inguruko teknologia gero eta merkeagoa da. Lagungarria al da hori zuen helburuetarako?

Bai, zinematik bideora eman zen jauzia eta Internet garrantzitsuak dira oso, tresna jendearengana hurbiltzen baitute. Dena dela, kontu handiz ibili behar dugu eta jasotzailearen arabera tresnak aukeratu. Hots, auzo txiro bateko biztanleei zuzentzeko hobe dugu telebista erabiltzea, Internetik ez dutelako. Telebista atsegin dut boteretsua delako. Nire ustez, kartelak jartzea ekintza zahartua da, ez du ezertarako balio. Telebistak aldiz, ideiak zabaltzerakoan indar itzela dauka. Horregatik, lehenetasuna ematen diogu herri telebistak sortzeari. Azken urteotan horretara zuzendu ditugu ahaleginak; piketeroek, herri batzarrek eta dokumental taldeek bat eginez, Buenos Aires Handian hainbat proiektu jarri dituzte abian, *TV Piquetera* kasu. Duela hogeita hamar urte bezala, beharrezkoa dugu albisteen gaineko monopolioa apurtzea.

Zeintzuk dira, zure ustez, Argentinako telebistaren eta hemengoaren arteko aldeak?

Hemengo telebista kateen albistegiak ikusita, Argentinan albistegirik ez dagoela esan daiteke. Asteburuetan, adibidez, ez dago izen hori daraman telesaierik ere! Zuenen ulertu dute hedabideen rola eta pentsamendu bakarra sortzeko duten garrantzia.

Zelakoa da dokumental argentinarraren osasuna?

Asko dira zeregin hauetan gaudenak eta dokumentalaren egoera ona da. Badira, batetik, 2001a baino lehenago lan egiten hasiak diren dokumentalgileak, *Boedo Films* eta *Cine Insurgente* beza-



lakoak, eskarmentu handikoak. Haietako asko urtebete duen DOCA (Argentinako Dokumentalgileak) elkartearen daude eta elkarte honen helburuetako bat da diru-laguntza guztiak ez daitezela joan ekoizpen enpresa handietara, telebistara. Gehienak dokumental luzeak oso baliabide gutxirekin egitera ohituta daude. Bestetik, 2001eko *Argentina* ostan jaio diren taldeak daude. Hauek nahiago dute auzoetan lan egin eta *TV Piquetera* bezalako proiektuak bultzatu: hamabost minutuko filmak, kontrainformazioa zuzenduak gehienbat. Argentina barnealdean hainbat talde dauden arren –Saltako *Wayruru*, Rosarioko *La Conjura* TV edota Kordobako *Cuarto Patio*–, gehienak Buenos Aires hirikoak dira. Azken hilabeteotan ikusgai egon diren luzemetraien artean, *La Crisis causó dos muertes* (Escobar eta Finyarb, 2007), *Corazón de fábrica* (Ardito eta Molina, 2007), *Yo pregunto a los presentes* (Guzzo, 2007) eta *Gaviotas Blindadas* (Mascaró, 2006) nabarmendu ditzakegu. Lehenengoa hedabideen lanaren inguruko hausnarketa sarkona da eta agerian uzten du hedabide handiek berriak nola aurkezten dituzten, nola esaten duten gezurra. Mascarórena interesgarria da, oso baliabide urriekin eginda dagoen arren bost urteko lanaren ostean argitaratu ateratzea lortu dutelako. Bertan, Argentinan isilarazita egon den

Herriaren Armada Iraultzailea, Argentinako gerrilla marxista da protagonista.

Eta zeintzuk dira zuk ekarri dituzun lanak?

MTD *Maximiliano Kosteki*, *Cromañón* eta *Wall-mapu* ordu erdiko informeak dira, piketeroek eta maputxeek bizi dituzten egoerak salatzen eta ezagutarazteko eginak. *Yaiyota ñande igüi* (Gure lurak nahi ditugu), berriz, ordu eta erdiko filma da eta zine-areto komertzialetan ikusgai egon da. Guaraniak euren lurak defendatzen erakusten ditu. ■

Txapela

buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia

telf. 943428299 www.txapelaburuan.com